



Konrado Mugertzarentzat  
Langileriaren Kudeaketarako Zuzendaria  
Hezkuntza Saila  
Eusko Jaurlaritza

Bilbao, 2015eko otsailaren 27

Zuzendari jauna:

CCOO Irakaskuntzak haserre handiz jaso du zure zuzendaritzak ikastetxeenarekin batera otsailaren 25ean bidalitako zirkularra, ikastetxeen jakinarazteko hurrengo martxoaren 11an boto-eskubidea erabiltzeko ordu-baliatzeari dagokiona.

Aipatu zirkularrean, 6. puntuan, zehazki, zera esaten baita: hauteskunde eguna zuzen gerta dadin zaindu behar duten ikuskatzaileei dagozkien ordezkapenak Hezkuntza Sailak ez dituela beteko.

Baina Mugertza jauna, gogoratu nahi dizugu, horrek EHAEko unibertsitatez kanpoko langile funtzionarien lan-baldintzen Akordio Erregulatzailearen 20. artikulua urratzen duela (EHAA 2010-07-16)). Bertan, ezin eztabaidatuzko eran zera adierazten baita: **beste egoeren artean, lehen egunetik liberazio sindikalen ondoriozkoak ordezkatu dira.**

Jakitun al zara Mugertza jauna, zure Sailak hartutako erabakia erakunde sindikalei oztopo besterik ez dakarziela, ikuskatzaile funtzioa beteko duten ordezkariak betetzeko?

Beraz, guztiz onartezina da zuzentzen duzun zuzendaritzak hauteskunde prozesua oztopatzea. Izan ere, zure betekizuna guztiz bestelakoa izan beharko litzateke, hots, hauteskunde eguna parte hatze demokratiko handiko festa izaten lagundu eta bultzatzea, eman daitekeen hauteskunde emaitza alde batera utzirik.

CCOO Irakaskuntzak garbi utzi nahi du, berriro ere, hartutako erabakiarekiko desadostasuna.

Adeitasunez,

CCOO Irakaskuntza